


EMAKUMEZKOEN TOURRA. Bizkaia zeharkatuko du bihar Emakumezkoen Tourrak Bilbo eta Gernika artean jokatu diren bi sektoreetan. Etapa erabakigarrienak, ordea, gero etorriko dira: etzi Tourmalet igotzean, eta azkenaurreko eguneko etapa gogorrean.

Emakumezkoen Tourra Bilbo - Paris

Erlojupekoa (abuztuak 5) **Bilbo / Bilbo, 9,9 km**



1. Etapa (abuztuak 5) **Bilbo / Gernika, 107 km**



Faboritoen pokerra



Svetlana Bubnenkova
(Errusia)

Taldea: Edilsavino.
Palmaresa: Errusiako txapeldun 2000. urtean.
Ezaugarriak: Erlojupekoan espezialista, eta oso saiatua.



Severine Desbouys
(Frantzia)

Taldea: Gas Sport Team.
Palmaresa: 2000ko Tourrean laugarrena.
Ezaugarriak: Eskalatzailer bikaina. Baina erlojupekoan ez oso ona.



Joane Somarriba
(Euskal Herria)

Taldea: Alfa Lum.
Palmaresa: 1999ko Giroa, eta 2000ko Giroa eta Tourra.
Ezaugarriak: Igotzailer eta erlojupekoan oso ona. Baina besteekin alderatuta abiadura pixka bat falta zaio.



Zinaida Stahurskaia
(Bielorrusia)

Taldea: Gas Sport Team.
Palmaresa: Munduko txapeldun 2000. urtean, eta 2001eko Giroko irabazlea.
Ezaugarriak: Txirrindulari osoa da, eta indar handikoa.

Etapak

Zenb.	Eguna (abuztua)	Etapa	Km
1A	igandea 5	Bilbo - Bilbo	10
1B	igandea 5	Bilbo - Gernika	107
2	astelehena 6	Bareges - Campan	34,4
3	asteartea 7	Borbotan les Thermes - Bergerac	141,7
4	asteazkena 8	Bergerac - La Rochefoucauld	121
5	osteguna 9	St. Porchaire - La Roche sur Yon	138,6
6	ostirala 10	La Roche sur Yon - Bressuire	84,7
7	larunbata 11	Montmaurillon - Bourges	164
	igandea 12	Atsedeen eguna	
8	astelehena 13	Bourges - Domerat	99,8
9	asteartea 14	St. Yorre - St. Galmier	112,5
10	asteazkena 15	St. Galmier - Rive de Gier	42,8
11	osteguna 16	Langogne - Vernoux en Vivarals	125
12	ostirala 17	Valreas - Superdevoluy	131
13	larunbata 18	Guillestre - Vaujany	135,5
14	igandea 19	Pierrelaye - Paris	117,6



Txapeldunaren omenez

Erredakzioa | **BILBO**

Bilbon hasiko da bihar goizeko 10:00etan 2001eko Emakumezkoen Tourra, eta 1 dortsalarekin eta maillot horiarekin Joane Somarriba txirrindulari bizkaitarra aterako da. Emakumezkoen Tourreko antolatzaileek iazko garailearen omenez aurtengo irteera Bilbon jarri dute, eta emakumezkoen munduko proba garrantzitsuenak goizez —Bilbo-Bilbo erlojupekoan— eta arratsaldean —Bilbo-Gernika 107 kilometroko etapan— Bizkaia hiri eta herriak zeharkatuko ditu: Bilbo, Elorrieta, Leioa, Sopela, Mungia, Gernika, Ibarrangelu eta, berriro, Gernika. ETBk egunero jarraituko du lasterketa.

Joane Somarriba iazko Emakumezkoen Tourreko garailea maillot horia jantzita aterako da bihar Bilboko kaleetan, aurtengo lehen etapako erlojupekoan

Pier Boue Emakumezkoen Tourreko zuzendariaren hitzetan lasterketak bere irudia indartu nahi du Frantziatik kanpo, eta horregatik bihar Bilbon hasiko da, eta hurrengo urtean Holandan. Bilboko goizeko erlojupekoa 10:00etan hasiko da, eta txirrindulariak minutu bateko aldearekin aterako dira 9,9 kilometroko ibilbidea osatzeko; azken hamarrak bi minutuko aldearekin. Goizeko sektorea bezala arratsaldekoa Kale Nagusia eta Maria Diaz de Haro kaleen arteko gurutzbidetik aterako da, 15:00etan.

Irteeran egongo diren txirrindularien artean lau dira aurtengo edizioa irabazteko faboritoak, eta horien artean Zinaida Stahurskaia bielorrusiarra. UC Iren sailkapenean bera da munduko bigarrena, eta Anna Millward lehenengoa falta dela, Stahurskaia indarrak Emakumezkoen Tourra irabazteko faborito egiten du. Stahurskaia badaki gainera zer den Euskal Herrian irabaztea, aurtengo Emakumezkoen Birako bigarren etapako bigarren sektorea berak irabazi baitzuen. Joane Somarribak mai-

lilot horia aterako du Bilbon, baina bizkaitarrak ez du erraza izango maillot hori bera Parise-ra arte mantentzea.

«Inoizko erlojupeko luzeena»

Emakumezkoen Tourra Frantziako hiriburuan amaituko da hilaren 19an. Boue zuzendariaren hitzetan Tourrak izango dituen ezaugarrietako bat emakumezkoen txirrindularitzan inoiz egon den erlojupeko luzeena izango da. Abuztuaren 15ean jokatu da, eta 42,8 kilometro izango ditu St. Galmier eta Rive de Gier herrien artean.

Baina aurtengo etapa gogorrean azkenaurrekoa izango da: 135 kilometro ditu, eta txirrindulariek Izoard (kategoriaz kanpo) eta Lautaret mendateak igaro ondoren, Vaujany izango dute helmuga. Mendiko beste etapa etzikoa izango da. Bizkaian, txirrindulariak Piriñotara joango dira, eta etzi Tourmalet igo beharko dute 34,4 kilometroko etapa motz batean. Guztira 1.565 kilometro egingo dituzte txirrindulariek 14 etapatan. Tartean, abuztuaren 12an, atsedeen eguna izango dute.